



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA

Argitalpen-data: 2018

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

ERAIKINAK GARBITZEKO, INGURUA ERRESPETATZEN DUEN ZERBITZUA KONTRATATZEA

Eraikinak garbitzeko ohiko zerbitzuak osasunerako kaltegarriak diren mikroorganismoak ez ugaltzeko balio du, baina kalte hauek ere eragiten ditu:

- Laneko osasun-arazoak, osasunerako toxikoak eta kaltegarriak diren produktuak ondo ez erabiltzeagatik, edo horien eraginpean denbora gehiegi egoteagatik.
- Ingurumenaren gaineko inpaktua, ur-inguruneari eragiten dioten substantzia arriskutsuak eta kaltegarriak erabiltzeagatik.
- Organismo patogenoek desinfektatzaileei aurre egitea, horien erabilera mugatzen ez bada edo egokia ez bada.

Horregatik, fitxa honetan, kontratazio eta erosketa berdearen bidez, eraikinak garbitzeko zerbitzuan ingurumen irizpideak nola sartu zehaztu da, inpaktu horiek ahalik eta gehiena gutxitzeko. Ikus dezagun nola.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Eraikinak garbitzeko zerbitzu berdeak garbiketaren ondoriozko ingurumen-inpaktua ahalik eta gehiena gutxitzea du helburu. Xehetasunen berri izateko, hauek dira horrekin lotutako ideia batzuk:

Zenbait kontzeptu nagusi

Ohiko garbiketa-zerbitzuaren zer alderdik eragiten dituzte ingurumen-inpaktu negatiboak?

1. Erabiltzen diren era askotako garbiketa-produktuek eta horiek gehiegi kontsumitzeak.
2. Erabiltzen diren produktuen arriskugarritasunak eta toxikotasunak.
3. Zenbait higiene-produktu —papera, zabor-poltsak...— ekoizteko prozesuek.
4. Ohiko esku-lehorgailuen energia-kontsumoak.
5. Motor bidez funtzionatzen duten makinak (xurgagailu eta leungailuak) energia- eta ur-kontsumoak, eta horiek ateratzen duten zaratak.
6. Eraikinetan sortzen diren eta garbiketa-zerbitzuak sortzen dituen hondakinek (bai arriskutsuek bai ez-arriskutsuek) eta horien kudeaketak.




Zer neurri har daitezke inpaktu horiek gutxitzeko?

- *Garbiketa-lanak* eta *-maiztasuna* benetako beharretara ondo egokitu.
- Erabiltzen diren era askotako garbiketa-produktuak gutxitu, eta behar-beharrezkoak soilik erabili.
- Erabiltzen diren produktuen zama toxikoa gutxitu, osagai kaltegarriak dituzten produktuak baztertuz, gutxiago erabiliz edo toxikotasun gutxiagoko produktuak aukeratuz.
- Ingurumenaren aldetik hobeak diren higiene-produktuak erabili.
- Ingurumena eta lan-osasuna gehiago errespetatzen duten makinak erabili.
- Garbiketa-zerbitzuan hondakin gutxiago sortu eta horiek behar bezala kudeatu, eraikineko gaikako bilketa errespetatuz.
- Langileak etengabe prestatu, garbiketa-produktuak eta -makinak behar bezala maneatuko, dosifikatuko eta erabiliko dituztela bermatzeko, bai eta garbiketaprotokoloak zein hondakin-kudeaketa behar bezala egingo dituztela bermatzeko ere.

Zenbait kontzeptu nagusi

INGURUMEN-ZIURTAGIRIAK, zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- Garbiketa- eta higiene-produktuei lotutako inpaktuak gutxitzeko modurik errazena ekoetiketak dituzten produktuak erabiltzea da. Hauek dira produktu horietarako **ekoetiketa ofizial nagusiak**:

	Europako Etiketa Ekologikoa	Aingeru Urdina	Beltxarga Zuria
			
Garbiketako produktuak	●	●	●
Komuneko papera	●	●	●
Eskuak lehertzeko papera	●	●	●
Esku-xaboia	●	●	●
Zabor-poltsak		●	

- Enpresen euren ziurtagiriak:** Produktu ziurtagiriak lortzeaz gain, enpresek eurek ere lor dezakete «garbiketa-zerbitzuetarako» Europako Etiketa Ekologikoa, edo garbiketa-zerbitzuan ingurumen-kudeaketako sistemak ezarrita izan ditzakete (EMAS, ISO 14001, Ekoscan...). Horrela, legeria betetzen dutela eta garbiketa zerbitzua ingurumen-jardunbide egokiekin eskaintzen dutela egiazta dezakete. Hori horrela izanik, garbiketa-enpresak hautatzerako orduan, enpresok ingurumen-kudeaketako sistemaren bat izatea edo zerbitzuari dagokion europar ekoetiketa izatea lehenetsi daiteke.



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Eraikinak garbitzeko ingurumen-irizpideak dituen zerbitzua kontratatzeko edo berezko zerbitzua kudeatzeko prozesuan, erosle eta kontsumitzaile gisara erabaki eta eragiteko aukera dugu zenbait unetan. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

ZEIN DIRA NIRE BENETAKO BEHARRAK?

1. Urratsa. Beharrak

Benetako garbiketa-premiak zein diren jakiteko, *garbiketa-plan bat antolatzea* komeni da. Horrek esan nahi du:

- Lehendabizi, “garbiketa” terminoa eta dauden estandar edo mailak zehaztea, kulturaeta ohitura-subjektibotasunak kontuan hartuta.
- Ondoren, espazioaren plano eskuratu eta zer nolako azalera garbitu behar diren (parketa, terrazoa, tronadura, moketa...) erabakitzea, ahalik eta zehatzen, azalera bertikalak ere kontuan hartuta (beirak, apalak eta abar), bai eta horietako bakoitzak zenbat metro koadro dituen ere. Horretaz gain, azalera-mota bakoitzerako zer produktu-mota, tresna eta makina eta zenbateko dosiak erabili behar diren zehaztu behar da.
- Lan-plana bukatzeko, eremu bakoitzean zenbateko garbitasuna nahi den, garbitzeko zenbat denbora beharko den eta zenbatean behin garbitu behar den zehaztu behar da.

Horrek guztiak benetako beharretara egokitutako lan-plana izaten lagunduko digu, eta, hala, langileen beharren eta produktuen eta makinaren kontsumoen segimendua egin ahal izango dugu.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. Urratsa. Zerbitzuaren kontratazioa

Garbiketa-plana zehaztu ondoren, zerbitzua kontratatzeko unea da (edo geure zerbitzua egokitzekoa). Nola? Gai honekin lotutako ingurumen-irizpideak tartekatuz. Ikus dezagun:

ENPRESA hautatzeko aintzat hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Zerbitzua kudeatzeko kanpoko enpresa bat kontratatzeko hautua egiten bada, garbiketa-zerbitzua (ez bulegoak edo beste jarduera batzuk) ingurumen-kudeaketako sistema batekin ziurtatuta duen enpresa baten alde egitea gomendatzen da (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea), edo «garbiketa-zerbitzuetarako» Europako Etiketa Ekologikoa duena.
- Horrelako ziurtagiririk duen enpresarik aurkitu ezean, lan-osasuna eta ingurumena babesteko lan-prozedurak eta -jarraibideak eratzea eskatu behar zaio hautatutako enpresari kontratuan, bai eta horiek aplikatzeko beharrezko mekanismoak ezartzea ere

2. Urratsa. Zerbitzuaren kontratazioa

(prestakuntza bidez, erregistroen bidez eta abarren bidez).

- Edonola ere, enpresek frogatu egin behar dute lan-osasunaren eta segurtasun estandarren gaineko, garbiketa-jardunei buruzko eta zerbitzuari dagozkion ingurumen-alderdiei buruzko prestakuntza duen koordinatzaile bat zeregin horretara bideratuko dutela.

GARBIKETA-PRODUKTUETARAKO ingurumen-irizpideak

- Lehenengo eta behin, erabilitako produktu kopurua txikienera murriztuko da eta debekatu egingo dira espraien, aire-gozogarrien, pilulen edota lurrindutako bestelako substantzien erabilera.
- Desinfektatzaileak edo produktu-desinfektatzaileak (lixiba, esate baterako) benetan behar badira soilik erabili behar dira (komunak, sukaldeak eta abar garbitzeko).
- Ohiko garbiketa-produktuen ordez aurretik aipatutako ekoetiketa ofizialak dituzten produktuak erabili behar dira. Ekoetiketarik ez duten produktuetarako, gero eta gutxien H arrisku ohar batekin sailkatutakoak hautatu behar dira (produktuaren segurtasun-fitxan jasota datoz).
- Bolumen handiko garraio-ontziak dituzten produktuak edo produktu kontzentratuak erabiltzea eta ontziak plastiko halogenatuzkoak ez izatea da balioetsi behar da.

HIGIENE PRODUKTUETARAKO ingurumen-irizpideak:

- Xaboa: aipatutako ekoetiketa ofizialetakoren bat duten produktuen alde egingo da.
- Paper higienikoa eta esku-lehorgailua: birziklatutako papera erosi da eta lehentasuna emango zaie ekoetiketaren bat duten produktuei Zabor-poltsak: plastiko birziklatuzko poltsak erosten saiatu behar da, eta ekoetiketa ofizialetakoren bat dutenak; horrelakorik aurkitu ezean, plastiko halogenaturik ez dutenak. Horretaz gain, garbitzaileek bilteta selektiboa errazago egin eta zaborrak nahas ez daitezten, hondakin-mota bakoitzerako kolore bateko poltsak erabiltzea gomendatzen da (urdina, papera eta kartoia biltzeko; horia, plastikoak eta ontzi metalikoak biltzeko).

BESTE TRESNA BATZUETARAKO, EKIPOETARAKO ETA MAKINETARAKO ingurumen irizpideak:

- Garbiketa-trapuak eta mopak edo zoru-garbigailuak. Mikrozuuntzekoak izan behar dute, hondakin gutxiago sortzeko eta ur eta produktu kimiko gutxiago kontsumitzeko. Motordun ekipoen edo beste era bateko trapuen ordez horiek erabiltzea hartuko da aintzat.
- Esku-lehorgailuak: hiru motatakoak daude merkatuan, airezkoak, paperezkoak eta telazkoak. Kokapenaren eta erabiltzaile motaren arabera hautatu beharko litzateke telazko lehorgailuak, zuntz birziklatuko toalladun paperezkoak edo abiadura altuko airezkoak erabiltzea (airezko ohiko gailuak ez dira erabili behar, ezta paperezkoak ere, papera ez baldin bada birziklatutakoa).
- Makinak (xurgagailuak, leungailuak...). Erabilera profesionaleko makinatarako

2. Urratsa. Zerbitzuaren kontratazioa

ingurumen-ziurtagiririk ez dagoenez, konparazioak eginda zehaztu behar dira eremu honetako irizpideak. Hala, fabrikatzaileek emandako eskaintzen artetik, potentzia berbera izanda, ur eta energia gutxien kontsumitzen duen eta zarata maila baxuena duen makina hautatu behar da.

KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN eskatu beharreko ingurumen-irizpideak:

- **Ontzien etiketatzea.** Behar bezala etiketatuta egon behar dute ontzi guztiek, eta horietan azaldu behar da: produktuaren merkataritza-izena, osagai arriskutsuen piktogramak eta erabilera-jarraibideak (batez ere, dosifikazioa).
- **Dosifikagailuak.** Garbiketa-produktuen dosifikazio-ekipo zehatzak eduki behar dira, kantitate justua eta beharrezkoa erabiltzeko.
- **Produktuak ordezkatzeta.** Eskaintzan dokumentatu ez den beste produkturen bat erabili behar bada, horri buruzko dokumentazioa aurkeztu behar da, produktua erabiltzea aurretik onartzeko.
- **Hondakinen kudeaketa.** Hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatu behar dute garbitzaileek. Eremuan sortutakoak badira, bildutako hondakin puskek gaika sailkatuta eduki behar dituzte langileek, eta dagokien edukiontzietan utzi. Zerbitzuak sortutakoak badira, eraikinean dagoen hondakin banaketa bera egin behar dute langileek, eta hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileen bidez tratatu (batez ere, garbiketa-produktu toxikoak eduki dituzten botila hutsak).
- **Trebakuntza.** Kontratu-hasieran, enpresak garbitzaileen lanari buruzko prestakuntza-plana aurkeztu behar du, eta lanak arduraz egiteko modua, langileen osasunari eta ingurumenari kalterik ez egiteko.
- **Komunikazioa.** Eraikinetako erabiltzaileak sentsibilizatzeko eta haiekin komunikatzeko jarduerak egitea hitzartu behar da enpresarekin. Helburua da garbiketako jardunbide onei buruz informatzea eta, horrela, kultura-kontzeptu eta ohitura txarrak baztertzea.
- **Txostenak.** Aldian behin txostenak aurkeztu behar ditu enpresak (zehaztu egin behar da zenbatean behin). Txostenetan, hau jaso behar da: produktuen balantzea eta produktu bakoitzetik zenbateko kantitatea erabili den, kontsumoa kontrolatu eta produktu gutxiago erabil dadin, betiere, ezarritako garbiketa estandarrei eutsita; zenbat hondakin baztertu den eta edukiontziak zenbat erabili diren dioen kalkulua, gai eta hilabete bakoitzeko zehaztua, eta prestakuntza-planaren garapen-maila.

Irizpide horien guztien artetik, bete behar direla edo erraz bete daitezkeela uste dugunak eskatu edo balioetsi behar ditugu kontratazioan.

OHARRA: Administrazio batek ezaugarri horiek dituen zerbitzua prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi badu, Ihobek argitaratutako Kontrataziorako eta erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoa (www.ihobe.eus) jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- Web-orri hau kontsultatu, aukeran: <https://www.ihobe.eus/erosketa-publiko-berdea>; bertan gaiari buruzko informazio asko dago jasota, baita garbiketa-zerbitzuei eskainitako kapitulu berezi bat ere, edo produktu, zerbitzu eta obren kategoria horietarako eta beste batzuetako ingurumen-irizpideak nahiz erreferentziazko dokumentazioa, hala nola produktuen ingurumen-etiketaren gida.
- Gainera, zalantzaren bat argitu nahi baduzu, Ihobera jo dezakezu, telefonoz, 94 4230743 zenbakira deituta, edo posta elektronikoko bidez: compra.verde@ihobe.eus.